

DEKALOGOIA

Kultura proiektuak zuritu eta ebaluatzeko jardunbide egokiak

1. Lehenik eta behin, kultura proiektuak hain aniztunak direnez zaila da **zuriketa eta ebaluazioa sistematizatzea**. Zailtasunak gainditzeko jardunbide egokiak behar-beharrezkoak ditugu.
2. Balizko sistematizazioa diseinatu eta probatzeko **lan metodologia** bati helduko diogu.
3. Metodologiaren muinean **autodiagnostikoa** dago. Ezer neurtu aurretik, **galdera egokiak** egingo ditugu: zer neurtu nahi dugun eta zertarako jakiteko.
4. Galdera sorta egiteko **erreferentzia esparrua** definituko dugu, gure proiektua testuinguruaren hiru alderdirekin erkatuz: (1) **herritarrak**, (2) **erakundea** eta (3) **kultura eta sorkuntza**.
5. Esparrua honako **galdera hauek** eginez zehaztuko dugu, horrela kultura proiektu bakoitzaren jardueraren garapena urtez urte ezagutzea ahalbidetuko duten **adierazle estrategikoak** bilduko ditugu:
 - Zer ematen diegu gure lan eremutik gure lana *ezagutzen ez duten* herritarrei / instituzio erakundeei / kultura erakundeei?
 - Zertarako egiten dugu lan hori?
 - Zer ematen diegu gure lan eremutik gure lana *ezagutzen duten* herritarrei / instituzio erakundeei / kultura erakundeei?
 - Zertarako egiten dugu lan hori?
6. Proiektuak zuritu eta ebaluatzeko lanak hobeto ulertzeko bi kontzeptu argitu beharko ditugu: marko teorikoa eta adierazleak.
7. **Marko teorikoa** berez agerikoa ez den eta frogatu ez den proposamena da, lanaren oinarri gisa onartzen dena, eta ikerketaren eta metodologiaren garapenaren bidez erabat edo partzialki bermatuko dena.
8. **Adierazleak** informazio piezak dira eta, beste batzuekin batera, jarduera, proiektu eta abarren neurketaren gaineko erabakiak hartzeko balio dute. Adierazleak elikatzen dituzten datuak epe labur, ertain eta epe luzera egituratzen dira.



Zuriketa eta ebaluazioa, proiektuak egonkortzeko aukera

K bulegoak formakuntza saioa antolatu zuen Gipuzkoako kultura eragileentzat 2023ko azaroaren 16an, kudeaketaren zuriketa eta ebaluazio atalak sendotu eta horretarako **gaitasunak lantzeko xedez**. deKalogo hau saioan landutakoa laburbiltzen du.

Urte amaieran zuriketa izaten da kultura proiektuak burutzeko azken zeregina, bereziki dirulaguntza deialdien esparruan. Kudeatzaile askok betebeharrak etsigarritzat hartzen dute egitekoa, azken ordainketa jasotzeko urrats saihetsezintzat, baina **proiektuak behar bezala ebaluatzeko abagunea da** une hau, egitasmoa bera jasangarriago eta egonkorragoa izan dadin. Are gehiago, proiektuak egoki kudeatzeko **oinarrizko zeregina** da.

Álvaro Fierro gidatu zuen saioa. Fierro Ekonomian doktorea da Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Ekonomia Aplikatua eta Kultura gurutzatzen diren esparruan dihardu ikertzaile eta irakasle. Era berean, proiektuak ebaluatzen aditua da, hainbat kultura erakunderentzat jorratutako lanei esker.

9. Epe laburreko datuak. Epe laburrera lor daitezkeen informazioa da eta, neurri handi batean, proiektu bakoitzean egiten diren ekintzetatik eratortzen da. Proposatutako helburuak zein izan diren jakitea ahalbidetzen dute.

Epe ertaineko datuak. Datu horiek garapen datuen ondorio dira, eta epe ertainera neur daitezke. Datu horiek informazioa ematen dute egindako prestakuntza ekintzek izan duten eraginari buruz.

Epe luzeko datuak. Epe luzera soilik neur ditzakegun datuak dira, eta horiek neurtzea aurreko bi datu moten araberakoa izaten da. Egindako ekintzak pixkanaka gizartean nola sartu diren ezagutzeko aukera ematen digute, gizartean aldaketak sortu arte.

10. Hausnartzea. Informazio sekuentzia hori lanerako zenbaterainoko esanguratsua den edota bideragarria den (antolakundearen beraren esku egongo den informazioa biltzeko sekuentzia kalkulatzeko).

11. Erakundeak berak alderatu behar du, neurketan autonomia bada, erabilgarri dauden baliabideak erabiliz, eta datuen sistematizazioaren arduradunak, desbideratzerik izanez gero, denbora errealean zuzendu.

12. Bildutako datuekin aldi baterako serieak osatuko dira **irakurketa desberdinak** egin ahal izateko, **eta baliagarriak** izango dira honako lau alderdi hauetan:

- **Proiektua:** etorkizuneko erabakiak hartzen laguntzea
- **Komunikazioa:** egindako lana eta lortutako emaitzak herritarrekin edo hirugarrenekin sozializatzea
- **Negoiazioa:** sortutako emaitzei balioa ematea hirugarrenen aurrean, baita ekitaldia bultzatu duen erakundearen barruan ere
- **Justifikazioa:** lortutako finantzaketa publikoa justifikatzeko argudio ahalmena

Kbulegoa Ibilbideak

Kultura proiektuak prestatu eta indartzeko mugari monografikoak

Imagen. Silvia López de Lacalle Gurruchaga